

ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA, HERRI
ADMINISTRAZIORAKO ETA ERAKUNDE
HARREMANETARAKO FORU DIPUTATU ETA
KONTSEILUKO IDAZKARI ANDREAK

HAUXE EGIAZTATZEN DU:

Bizkaiko Foru Aldundiak, **bi mila eta hogeita biko**
uztailaren bostean egindako bilkura-saioan, erabaki hau
hartu zuela, besteak beste: **Eguneko Aztergaien Zerrendako 22**
gaia.

“22.- ERABAKI PROPOSAMENA, ZERTARAKO
ETA “MARKINATIK ETXEBARRIARA BI-636 ETA BI-
2636 ERREPIDEAK LOTZEKO BIDEAREN
PROIEKTUA” BEHIN-BEHINEAN ONESTEKO ETA
PROIEKTU HORREN JENDAURREKO INFORMAZIO
IZAPIDEA ETA ENTZUNALDIKO IZAPIDEA
BETETZEKO, ERREPIDEEN ARLOKO ARAUDIAREN
ONDORIOETARAKO, ETA DAGOKION INGURUMEN
ERAGINAREN AZTERLANA ERE JENDAURREAN
JARRI ETA KONTSULTA IZAPIDEA BETETZEKO.

Lehenengoa.- “MARKINATIK ETXEBARRIARA BI-
636 ETA BI-2636 ERREPIDEAK LOTZEKO BIDEAREN
PROIEKTUA” behin-behinean onestea. Lizitazioaren
oinarrizko aurrekontua, **BEZik gabe, HOGEITA BI**
MILIOI HIRUREHUN ETA BERROGEITA HAMAIKA
MILA EHUN ETA HIRUROGEITA HIRU EURO ETA
HIRUROGEITA BI ZENTIMOKOA (22.351.163,62
euro) da, eta, BEZa barne, HOGEITA ZAZPI MILIOI
BERROGEITA LAU MILA BEDERATZIEHUN ETA
ZAZPI EURO ETA LAUROGEITA HAMAZORTZI
ZENTIMOKOA (27.044.907,98 euro). Aurreikusitako
betearazpen-epea **HOGEITA LAU (24) HILABETEKOA**
da, onartzeko igorri diren eta espedientean dauden
proiektuaren eta txostenaren arabera.

Bigarrena.- Ukituta izan litezkeen udalen eta
gainerako administrazio eta erakunde publikoen
Jendaurreko informazioaren entzunaldiaren izapidea
hasteko agintzea, Bizkaiko errepideen urriaren 20ko
5/2021 Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorriz.

ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA,
DIPUTADA FORAL DE ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y
RELACIONES INSTITUCIONALES Y SECRETARIA DE
LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA

CERTIFICA:

Que la Diputación Foral de Bizkaia, en sesión
celebrada el día **cinco de julio de dos mil veintidós,**
adoptó entre otros, el siguiente Acuerdo: **Asunto nº 22**
del Orden del Día.

“22.- PROPUESTA DE ACUERDO PARA LA
APROBACIÓN PROVISIONAL DEL “PROYECTO
DEL VIAL DE CONEXIÓN DE LA CARRETERA BI-
633 CON LA BI-2636 DE MARKINA A
ETXEBARRIA” Y SU SOMETIMIENTO AL TRÁMITE
DE INFORMACIÓN PÚBLICA Y AUDIENCIA A LOS
EFFECTOS DE LA NORMATIVA SECTORIAL DE
CARRETERAS, ASÍ COMO SU SOMETIMIENTO AL
TRÁMITE DE INFORMACIÓN PÚBLICA Y
CONSULTAS DEL CORRESPONDIENTE ESTUDIO
DE IMPACTO AMBIENTAL.

Primero.- Aprobar provisionalmente el
“**PROYECTO DEL VIAL DE CONEXIÓN DE LA**
CARRETERA BI-633 CON LA BI-2636 DE MARKINA
A ETXEBARRIA”, con un presupuesto base de
licitación (sin IVA), de **VEINTIDOS MILLONES**
TRESCIENTOS CINCUENTA Y UN MIL CIENTO
SESENTA Y TRES EUROS CON SESENTA Y DOS
CENTIMOS (22.351.163,62 Euros), y (con IVA
incluido) VEINTISIETE MILLONES CUARENTA Y
CUATRO MIL NOVECIENTOS SIETE EUROS CON
NOVENTA Y OCHO CÉNTIMOS (27.044.907,98
Euros), así como un plazo estimado de ejecución de
VEINTICUATRO (24) MESES, en base al proyecto e
informe para la aprobación remitidos, que constan en
el expediente.

Segundo.- Ordenar el inicio del trámite de
información pública y audiencia de los Ayuntamientos
y demás administraciones y organismos públicos que
pudieran resultar afectadas, de conformidad con lo
dispuesto en la Norma Foral 5/2021, de 20 de
octubre de Carreteras de Bizkaia.



Hirugarrena. - Aipatutako proiektua jendaurrean jartzea **HOGETA HAMAR (30) EGUN BALIODUNEKO** epean, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik hasita. Izapide horren barruan, ukitutako udalei eta interesa duten gainerako administrazio eta erakunde publikoei entzungo zaie, adierazitako epean adieraz dezaten zer iritzirik duten dokumentuari buruz, eta egoki deritzen alegazio edo iradokizunak egin ditzaten.

Laugarrena.- Aurreko erabakietan jasotako jendaurreko informazioaren izapiderako, Ingurumen Eraginaren Azterlanaren epe eta prozedura berbera ezartzea, Ingurumen ebaluaziorako abenduaren 9ko 21/2013 Legean ezarritako eragina izan dezan, Bizkaiko Errepideen urriaren 20ko 5/2021 Foru Arauaren 20. artikuluan dagoen aurreikuspena betetz. Horrela, proiektatutako jarduerarekin kaltea jasoko dutela uste dutenek aipaturiko **30 EGUN BALIODUNEKO** epean eta erabaki honetan aipaturiko lekuetan aurkeztutako alegazioek Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasuna eta Ingurumen Naturala Zaintzeko Sailean aurkeztu izan balira bezalako balioa izango dute.

Bosgarrena.- Aurrekoa aintzat hartuta, espedientea jendaurrean jartzea Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Sailaren bulegoetan (Bilboko Ibañez de Bilbao kaleko 20. zenbakian), aztertu eta dagozkion alegazio eta oharra aurkeztu ahal izan daitezten bertako erregistroan; nolahi ere, alegazio eta ohar horiek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan zehazten diren tokietako edozeinetan ere aurkez daitezke.

Era berean, 39/2015 Legearen 83.2. artikuluan xedatutakoa betetz, Bizkaiko Foru Aldundiaren webguneko "Jendaurreko informazioko fasean dauden planak eta proiektuak" atalean kontsultatu ahal izango da, eta, era berean, alegazioak aurkeztu ahal dira webgune horretan adierazitako bulego birtualaren bidez.

Seigarrena.- Dagokion iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Tercero. - Someter el citado Proyecto al trámite de información pública por un plazo de **TREINTA (30) DÍAS HÁBILES** a contar desde el día de publicación del anuncio en el "Boletín Oficial de Bizkaia". Este trámite incluirá la audiencia a los ayuntamientos afectados y demás administraciones y organismos públicos interesados a fin de que en dicho plazo emitan su opinión respecto al documento y formulen las alegaciones o sugerencias que estimen convenientes.

Cuarto.- Establecer que dicho trámite de información pública recogido en los acuerdos precedentes, lo sea también, en el mismo plazo y procedimiento, respecto del Estudio de Impacto Ambiental a los efectos establecidos en la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de Evaluación Ambiental, en cumplimiento de la previsión contenida en el artículo 20 de la Norma Foral 5/2021, de 20 de octubre, de Carreteras de Bizkaia. De tal forma, que las alegaciones que presenten quienes se consideren perjudicadas por la actuación proyectada, durante el indicado plazo de **30 DÍAS HÁBILES** y en los lugares mencionados en el presente acuerdo, tendrán los mismos efectos que si se hubiesen presentado ante el Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural de la Diputación Foral de Bizkaia.

Quinto.- A los efectos anteriores poner de manifiesto el expediente en las dependencias del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, sito en la c/ Ibañez de Bilbao nº 20, donde podrá ser examinado, pudiendo presentarse las oportunas alegaciones y observaciones en el registro de dicha dependencia, sin perjuicio de la posibilidad de presentar las mismas en cualquiera de los lugares permitidos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Asimismo en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 83.2 de la Ley 39/2015, podrá consultarse en la sección de "Planes y proyectos en fase de Información Pública" de la web de la Diputación Foral de Bizkaia e, igualmente, se podrán presentar las alegaciones a través de la oficina virtual señalada en la citada web.

Sexto.- Insertar el correspondiente anuncio en el "Boletín Oficial de Bizkaia".



Zazpigarrena.- Ingurumen arloan aurkez daitezkeen alegazio eta oharrak Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailera bidaltzea, bai eta gainerako agiriak ere, ingurumen-araudiak ezarritakoari jarraikiz, ingurumen-eraginaren derrigorrezko adierazpena egiteko.

Zortzigarrena.- Hizpide dugun proiektu hau Markina-Xemeingo Udalari eta Etxebarrriako Udalari igortzea, haren entzunaldi-izapidea egiteko, dokumentuari buruz duten iritzia adieraz dezaten eta egoki deritzen alegazio edo iradokizunak egin ditzaten, entzunaldi publikoko izapiderako aurreikusitako epearen barruan. Epe hori eta beste **HILABETE BAT** gehiago -lehenengo epea amaitzen den egunetik zenbatzen hasita- igaro ondoren administrazioek eta erakunde publikoek ez badute txostenik eman, dokumentua izapidetzen jarraituko da.

Bederatzigarrena.- Ingurumen kontsulten izapidean zehaztu diren erakunde eta entitateei proiektua eta horren Ingurumen Eraginaren Azterlana bidaltzea, horiek jaso eta **30 EGUN BALIODUNEKO EPEAN** beharrezkoak diren alegazio eta oharrak aurkez ditzaten.

Hamargarrena.- Aurreko erabakien berri ematea Lurralde Garapenerako Zuzendaritza Nagusiari (Azpiegiturak Kudeatzeko Zuzendariordetza Orokorren Plangintza eta Proiektuen Zerbitzua), eta Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari; era berean, foru erabaki hau jakinaraztea Markina-Xemeingo Udalari eta Etxebarrriako Udalari, eta bigarren puntuari adierazitako erakunde eta entitateei.”

Eta jasota gera dadin, eta Akta oraindik ez dela onetsi ohartarazita, idazki hau idazten da, Bilbon, sinatzen den egunean.

ALDERATURIK ETA ADOS. VISTO BUENO Y CONFORME

Idazkaritza orokorreko unitateko burua. Jefatura de la Unidad de Secretaria General. JOSEBA MIKEL GARCÍA PÉREZ.

ZIURTATU. CERTIFICA Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu eta Idazkari andreak.

La diputada foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales y Secretaria ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA.

Séptimo.- Remitir las alegaciones y observaciones que se pudieran presentar de contenido medioambiental al Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural de la Diputación Foral de Bizkaia, junto con el resto de documentación, según lo establecido por la normativa medioambiental, para la formulación de la preceptiva Declaración de impacto ambiental.

Octavo.- Remitir el proyecto que nos ocupa al Ayuntamiento de Markina-Xemein y al Ayuntamiento de Etxebarrria al objeto de someterlo al trámite de audiencia, a fin de que emitan su opinión respecto al documento y formulen las alegaciones o sugerencias que estimen convenientes, en el plazo previsto para el trámite de información pública. Transcurrido este plazo y el de **UN MES** más a contar desde el día de finalización del primero sin que las administraciones ni organismos públicos hayan emitido informe se continuará con la tramitación del documento.

Noveno.- Facilitar el proyecto y su estudio de impacto ambiental a cada uno de los organismos y entidades que se han identificado en el trámite de consultas medio ambientales al objeto de que en el plazo de **30 DÍAS HÁBILES** desde su recepción presenten cuantas alegaciones y observaciones estimen oportunas.

Décimo.- Comunicar los acuerdos anteriores a la Dirección General de Desarrollo Territorial (Servicio de Planeamiento y Proyectos de la Subdirección General de Desarrollo de Infraestructuras), al Departamento Foral de Sostenibilidad y Medio Natural, así como notificar el presente acuerdo foral al Ayuntamiento de Markina-Xemein y al Ayuntamiento de Etxebarrria y a los organismos y entidades indicadas en el antecedente segundo.”

Y para que conste, y con la advertencia de que el Acta todavía no ha sido aprobada se expide la presente, en Bilbao, a la fecha de la firma.